

Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaiei Buruzko Aldizkariaren liburuki honek, gai monografiko gisa, gure itsas tradizioarekin lotutako *ondare ez-materiala, memoriak eta ahozko iturriak* jorratzen ditu. Zenbaki honetan parte hartu duten adituen lanak garrantzi berezia du, aukera ematen baitu historia, tradizioak eta ohiturak ezagutzeko; adituen lanagatik izango ez balitz, horiek galdu eta ahazteko arriskua legoke. Testuen artean aurki ditzakegu, esaterako, herri kulturari buruzko ikerlanak, gure itsasertzeko zenbait herritako arrantzari buruzko memoriak, gure ontziolei buruzko eta arrantzan eta Merkatal Ontzidian aritutako profesionalei buruzko monografiak, edo emakumeen paperari eta haiek itsasoari lotutako ekintzetan izandako parte hartzeari buruzko lanak.

“Hainbat ikerlan” atalean ere interes handiko lanak aurkezten dira, Brasil, Ternua edota Txina bezalako lurralde urrunetako itsas jardueri buruzko memoria biltzen dutenak.

Itsas Memoria bi urtez behin argitaratzen den aldizkaria da, helburutzat du garatzea euskal itsasertzarekin lotutako ikerketak. *Itsas Memoriaren* ekarpena erreferentziazko obra gisa aitortua izan da itsas kulturaren arloan. Argitalpen horren eta aldi baterako erakusketei lotutako beste argitalpen monografiko batzuen bitartez, Donostiako Untzi Museoak, 1991an sortua izan zenetik, ekarpen sendo eta zabala egiten dio euskal itsas kulturaren iraganaren eta orainaren ezagutzari, bere neurri guztietan.

Este volumen de *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco* tiene como tema monográfico el *patrimonio inmaterial, memorias y fuentes orales*, vinculadas con nuestra tradición marítima. La labor realizada por los especialistas que participan en este número tiene una importancia singular pues permite conocer y conservar historia, tradiciones y costumbres que, de no ser por su trabajo, corren el riesgo de perderse y caer en el olvido. Entre los textos incluidos encontramos trabajos sobre la cultura popular, memorias sobre la pesca en distintas localidades de nuestro litoral, monografías sobre nuestros astilleros, los profesionales dedicados a la pesca y a la Marina Mercante o varios estudios relativos al papel de las mujeres y su participación en actividades relacionadas con el mar.

En el apartado de “Estudios diversos” se presentan también trabajos de gran interés que incluyen la memoria de empresas marítimas en tierras lejanas como Brasil, Terranova o la misma China.

Itsas Memoria es una publicación de periodicidad bienal, cuyo objetivo es el desarrollo de los estudios marítimos relacionados con el litoral vasco. La aportación de *Itsas Memoria* ha sido reconocida en el ámbito de la cultura marítima como una obra de referencia. A través de ella y de otras publicaciones monográficas ligadas a exposiciones temporales, el Untzi Museoa-Museo Naval de Donostia viene haciendo, desde su fundación en 1991, una sólida y extensa aportación al conocimiento del pasado y el presente de la cultura marítima vasca en todas sus dimensiones.

Denis Itxaso
Kultura Diputatua
Diputado de Cultura